

NAFARROAKO BIOETIKA BATZORDEA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA. PARTAIDETZA TXOSTENA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatua dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan.

Nafarroako Bioetika Batzordea arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua egin aurreko kontsulta publikoa agitaratu da web-orri honetan:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos-de-articipacion/propuestas-gobierno/previas>.

Kontsulta martxoaren 12tik apirilaren 7ra bitartean egon zen jendaurrean, biak barne. Ekarpenak helarazteko, mezu elektronikoak bidali behar ziren helbide honetara:

planificacion.evaluacion@navarra.es, interesdunaren nortasuna adierazita. Jendaurreko aldiari lau ekarpen jaso dira:

1. ekarpena:

Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzial eta Klinikoko Batzordeak hainbat gogoeta helarazi ditu, Bioetikako Batzorde Autonomikoaren behararekin eta justifikazioarekin lotuta.

2. ekarpena:

Kontsultari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Klinikako Etika Asistentzialeko Batzordeak uste du interesgarria izan daitekeela Bioetikako Batzorde Autonomiko bat izatea, eta prest dago erregelamenduaren lanketan laguntzeko eta ekarpenak egiteko, bai eta Batzordearen funtzionamenduan parte hartzeko ere.

3. ekarpena:

Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialak interesgarritzat jotzen du Nafarroako Bioetika Batzordea sortzea, eta prest dago batzorde horretan parte hartzeko, hainbat eremutan (ospitale-farmazian, industrian, farmazia-ikuskaritzan, ikerketan edo farmazia-bulegoan) lan egiten duten osasun-langileak baitira.



Ekarpen horiei dagokienez, adierazi behar da eragile horiek kontuan hartuko direla hurrengo partaidetza-fasean, Nafarroako Bioetika Batzordearen eginkizunei eta osaerari buruzko alderdiak zehaztuko baitira.

4. ekarpena:

Pertsona batek, bere izenean, adierazi du azaldu behar dela Nafarroako Etika Batzordearen beharra, ospitale bakoitzean eta oinarritzko osasun-laguntzan halako batzordeak baitaude.

Proposamen horri dagokionez, esan behar da batzordearen justifikazioa prozedura honi hasiera ematen dion alde zuzeneko kontsultarako agirian eta foru aginduan bertan dagoela.

Egindako iradokizun eta ekarpenak eskertuz, Nafarroako Bioetika Batzordea sortzen duen Foru Dekretuaren proiektua egiten jarraituko da, eta horren argitalpena behar bezala jakinaraziko da.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Genoveva Ochando Ortiz
Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzua.
Osasun Departamentua